



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2005eko azaroaren 2a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:03 **AMAIERA-ORDUA:** 19:12

BERTARATUAK:

Alkate-Lehendakaria Funtziotan

Eneko Olariaga Arruti

Zinegotziak

Ramon Etxeberria Aldaz, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ainhoa Leunda San Sebastian, Martxiel Genoba Solaberrieta, Maria Elena Legarra Alfaro, Eugenion Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi



Aztergai zerrenda

Puntu Bakarra.- Alkate berria aukeratzea indarrean dagoen hauteskunde-legedian ezarritako baldintzak betez.

Esan-eginak

PUNTU BAKARRA.- ALKATE BERRIA AUKERATZEA INDARREAN DAGOEN HAUTESKUNDE-LEGEDIAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETEZ.

Tokiko Udalbatzaren Idazkariak hartzen du hitza bildutakoei adierazteko Hauteskunde-legedi Orokorraren (apirilaren 21eko 8/1999 Lege Organikoak idatzia) ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 198. artikulua dioenaren arabera, 197 eta 197 bis artikuluetan agertzen ez diren ustezkoen aurrean, Alkatetzako hutsunea 196. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakiko da, hau da, Alkateak burutzen zuen zerrendaren hurrengoa izango litzateke Alkate, uko egin ezean. Ondorioz, Alkatea aukeratu behar da ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren aipatu 196. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

- ✓ Dagozkien zerrendak burutzen dituzten zinegotzi guztiak dira hautagai, Alkateak burutzen zuen EAJ-PNV/EA koalizioa izan ezik, kasu honetan 8. zenbakian zihoan hautagaiak, RAMON ETXEBERRIA ALDAZ jaunak burutuko baitu zerrenda, aurretik zeuden guztiek, hau da, Eneko Olariaga Arruti jaunak, Eugenio Cotado Iturain jaunak, Noemi Ostolaza Arkauz andreak, M^a Elena Legarra Alfaro andreak eta M^a Jose San Sebastian Aranburu andreak uko egin diote EAJ-PNV/EA koalizioa burutzeari Alkate berriaren aukeraketan, Etxeberria jaunaren hautagaiaren alde.
- ✓ Bilkuran dauden zinegotzi guztiak dira hautagai.
- ✓ Aukeraketa ezkutuzko boto-txartel bidez egingo da bozketa bakar batean.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren
Ezohiko Bilkuraren akta •
2005/11/02

- ✓ Alkate aukeratuko da botoen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia, hau da, gutxienez sei (6) boto behar dira.
- ✓ Hautagaietako inork lortzen ez badu gehiengo absolutu legala, automatikoki Alkate aukeratuko da azken Udal Hauteskundeetan boto gehien jaso duen zerrendaren zinegotzi burua. Berdinketa kasuen zozketa bidez erabakiko da.

Txosten honen ondoren eta kasu honi dagozkion aurrekariak kontuan hartuz, Alkategai ondorengo zinegotziak izendatzen dira:

RAMON ETXEBERRIA ALDAZ jauna, EAJ-PNV/EA zerrendaren burua.

JESUS JOSE JUAN RODRIGUEZ POUSA jauna, PSE-EE-PSOE zerrendaren burua.

Idazkariak hautesle bakoitzari boto-txartel zuri bat ematen die, eta agintzen die idazteko Alkate aukeratu nahi duten zinegotziaren izen eta abizenak, eta boto-txartelak tolesturik emateko.

Boto-txartel guztiak jaso ondoren zenbaketa egiten du Idazkariak, eta ozen irakurtzen ditu boto-txartel bakoitzean Alkate izateko agertzen diren zinegotziaren izen eta abizenak, eta ondorengo emaitza izan da:

RAMON ETXEBERRIA ALDAZ jauna, bederatzi (9) boto.

JESUS JOSE JUAN RODRIGUEZ POUSA jauna, boto bat (1).

Idazkariak gonbita egiten die bertan bildutakoei boto-txartelak eta batuketa egiaztatzeraz, eta ondoren boto-txartelak desegin egin dira.

Bozketaren emaitza ikusita, Udal honetako Alkate izendatzen da RAMON ETXEBERRIA ALDAZ zinegotzi hautagaia, EAJ-PNV/EA koalizioaren ordezkaria, botoen gehiengo absolutu legala lortu duen zinegotzi hautagaia izateagatik.

Jarraian RAMON ETXEBERRIA ALDAZ jaunak adierazten du Orioko Udalaren Alkate kargua onartzen duela, eta legeak hala aginduta zin egin ondoren, hauteskunde-legediak ezarritako formula legalaren arabera, Alkate kargua hartzen du



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren
Ezohiko Bilkuraren akta •
2005/11/02

Udalbatzaren Osoko Bilkuraren aurrean karguaren jabetza ematen diolarik, prerrogatiba guztiakin, eta indarrean dauden legezko xedapen guztiek ematen dioten eskubide eta betebeharrekin.

Azkenik, RAMON ETXEBERRIA ALDAZ jaunak hitza hartzen du bertaratuei eskerrak emateko Alkate aukeratzeagatik eta karguari ongietorria emateko, lan ona egiteko nahia adierazten du eta legegintzaldi honen amaieran Orioko herriak balantze baikorra egin ahal izatea Alkatetzaren epean.

Eta beste gairik ez izanik, eta publikoan den inork hitza hartu ez duenez, Alkate-Lehendakariak Osoko Bilkura hau amaitutzat ematea agintzen du, eta nik, Idazkaria naizenez, **ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.**

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA